

# MANASLU

## Lehen euskal espedizioa neguan, zortzimil batera

Félix Iñurrategi

**D**ELHIko aireportuan oso giro freskoa somatu genuen, Kathmanduko kaleetan hotz egiten zuen. Kaleak lohiez estalita, euria goian behean, jantzi-jantzi eginda ibili ginen batera eta bestera; polarra, lumazko txalekoa, euritakoa, botak... eta norbaitek, hoteleko manta eta maindireak gutxi izaki, lo egiteko lumazko sakurik haundiena ere atera zuen.

Borraska haundiren baten eraginpean geunden itxuraz, eta hura pasatu zen bezain laster, eguzkia izan genuen lagun aurrerakoan. Kathmandutik kargak helikopteroz bidali genituen Samara eta guk, berriz, astebetetz luzatu zen oinezko bidea egin genuen Buri Gandaki ibai arroan barrena. Saman demaseko elur maila aurkitu genuen, eta beldur ginez zamaketariak kanpamendu nagusira igoko ote zuten eta igotzen hasita ere noraino iritsiko ziren. Gure uste guztien kontra, abenduaren 28an ia 60 lagunek osatzen zuen taldeak goraino igo zuen; nola igo gainera!!!


Bi metroko elur mailaren ginean jaso genuen kanpamendua, eskubitik eror zitekeenari ihesi, eguzki begian, bailadari begira, haizelekua ez baina babesegia ere ez.

Abenduaren azken egun horietan, eguzkia Ganesh mendietatik oso eskubira ikusten genuen eguna esnatzen, eta gora igotzeko keinu apal bat eginda, Manasluko gailur aldean despeditzen genuen. Eguzki orduetan apenas esan zitekeen eguzkitan geundenik ere, baina hura izkutatzen zenean ederki somatzen genuen haren falta.

Urte berri egunean jo genuen aurrekotz mendira; lehenengo kanpamendura iritsi ginen, eta lanean segitzeko baldintza egokiak genituela ikusirik, fin-fin ibilita astebetera bukatu genituen prestaketa lanak: 1. kanpamendua 5600 mtan eta bigarrena 6800ean jarri genituen. Material, jan eta erregaiz hornitu eta aklimatazioa bukatzeko 6800 metroan lo egin genuen. Urtarrilaren bederatzian jeitsi ginen kanpamendu nagusira, atsetden hartu eta hurrengoan gailurrera abiatzeko esperantzan.

Barometroa behera zetorren, oso behera, eta etxetik eman ziguten eguraldi prebisioarekin bat zetorren gainera, itxoin beharra zegoen dudarik gabe. Bitartean, eztabaida sakonetan murgildu ginen, 3. kanpamendua egin edo bigarrenetik zuzenean gailurrera ateratzeko asmoen artean zegoen aldea. Aldeko eta kontrako arrazoiak eztabaidatu ondoren, 3. kanpamendua egitea erabaki zen.

Urtarrilaren 19an 2.etik atera eta ipar lepora jo genuen 3.era bidean. Lepoan bertan haizeak sekulako astinduak eman zizkigun, baina gora jarraitu genuen, lepoa utzi bezain laster haizea ere galduko zen ustetan, baina bai alferrik, 7100 inguruan buelta eman eta bigarrenean itzuli ginen, gauerdian beste saio bat egin asmatan, oroiangoan bigarrenetik zuzenean gailurrera. Gaueko ordu horietan dendatik ateratzeko zertzuk egin behar diren! eta hara, apenas hamar minutuko bidea egiteko, lepoaren gaina hartzera ere ez ginen iritsi. Goiko hotzak eta deserosotasunak pasa ondoren, kanpamendu nagusiak bainuetxea zirudien eta geure onera bueltatu bezain laster, berriro ere gora igotzeko prest ginen.



Argazkietan, Manaslu, Alberto eta Félix Iñurrategi, eta Josu Bereziartua

ARGAZKIAK: IÑURRATEGI ANAIK

Berez eguraldia ez zen txarra, egun eguzkitsuak ziren gehienak, baina Manasluko gailurrean etenik gabe somatzen genuen haize zurrumbiloa, ordurako ia hilabete generaman mendiarri begira eta konturatu ginen ordura artean ez zela gailurra zapaltzeko moduko egun bakarrik ere izan eta izatekotan ere, ez genuen erraz asmatzen.

25ean abiatu ginen kanpamendu nagusitik eta bigarren kanpamendurainoko bidea egin; 2000 metroko igoera da eta ibilbide luze samarrekoa, hala era, oso baldintza onetan harrapatu genuen. Ilargi berritan ginenez, ez zegoen gauean jolasean ibiltzerik eta hurrengo egunean goizeko 5etan irteteta pentsatu genuen, eguna zabaldu baino ordubete lehenago. Lepora iritsi ginen berriro ere, baina pauso erdirik ez harantzago, ezinezkoa zirudien haize bortitz hari apalune bat aurkitzerik. Hala era, hurrengo egunen berriz saiatzekotan, bigarrenean gelditu ginen, egonean-egonean ia hezurak gogortu zitzaizkigun arte.

Bezperan baino ordubete beranduago atera ginen, 6.tan. Haizea bazebilen, baina ez lehengo egunetan bezain indartsu, lepoa gurutzatu eta metroak irabaziz joan ginen; pasarterik gogorrean udazkeneko espedizioek utzitako soke zabaldu ginen. Hankak hotzitz joan zitzaizkigun, beroak sartu genituen arren, bi hiru orduren buruan gogor-gogor eginda genituen. Hirugarren kanpamendua jartzen den tokitik Josuri deitu genion: 7500 m.tan geunden eta 9,30 ak ziren, uste baino polikiago igo genuen beraz; hotzak ez zuen barkatu.

Berehala izotz kristala zapaltzeari ekin genion, hasieran beldurtu egin gintuen eta bertan uztekotan izan ginen; goraxeago jo genuen ordea. Laino mehe bat sartzen ari zen eta gailurra urruti ikusarazi zigun. Beharbada burua zen hurbilago ikusi nahi zuena, begiek lainoekin edo laino gabe urruti ikusten baitzuten. Nekatuta eta hotzak geunden, segituz gero behatzen bat gaitzeko zorian, berandu zen, gailurrik ez genuen arratsaldeko hiruak-lauak aurretik joko, eta itzultzea, osorik itzultzea, gauza ederragorik ez dago. □